



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

KURSAAL-ek bere konpromisu sendoena adierazten du edozein motatako iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko.

Profesionalek interes orokorrak zainduko dituzte, Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren errespetua bermatuz eta zainduz, ondoko printzipioen arabera: osotasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, objektibotasuna, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-eta ingurumen-ingurunearen sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua.

Adierazpen honen helburua da iruzurrezko jarduera oro saihestuko duen eta prebentzioa eta detekzioa erraztuko duen barne-kultura bat sustatzea, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorren garapena sustatuz.

KURSAAL-ek iruzurraren aurkako neurriak garatzen ditu, araudi komunitarioak ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun irizpideei jarraiki.

Era berean, prozesuen arduradunen eta kudeatzaileen lankidetzan du, bakoitzak bere erantzukizun eremuan barne-kontrolako sistema egokia duela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatzeko. Era berean, antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatuko ditu, barne jakinarazpen kanalen bidez, eta betiere agintaritzaren arduradunarekin, kontrol-agintaritzarekin, Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren lankidetzan.

Txosten guztiak konfidentzialtasun osoz eta gai hori arautzen duten arauen arabera landuko dira.

Zuzendari Gerentea